

...eta

Kitto!

891 zkia.
2014-V-30



**EUSKARAREN
ALDEKO
KATEA
BIHAR
13.00etan**

Ez dago ur hoberik!



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

G

A

**30 urteko esperientziak
ematen duen
konfiantza**



www.euki.com

Tel: 943 200 358

ESKAINTZA

- Euskalduntze eta alfabetatzea
- 1., 2. eta 3. maila (EGA) prestatzeko ikastaroak
- **TITULU OFIZIALAK**

- **Goizez, 4 orduko ikastaroak**
- **Ekainaren 26tik uztailaren 24ra**
- **Irailean jarraitzeko aukera**
(azterketa aurreko egunetan, egunero 2 ordu, bi astez)

TARIFA BEREZIAK ditugu *Etorri eta galdetu!*
16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULATZEKO EPEA

Udal Euskaltegian www.udaleuskaltegiak.net

Ekainaren 2tik 19ra bitartean



Bista Eder 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.net

Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

emaiozu euskararil dale al euskeral

Udako ikastaroak
Cursos de verano

ikasturteacurso
13/14
matrikula zabalik
matricula abierta

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikastaroa
Clases de euskera

IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 6RA

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIKOA
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRAZIOA

+ PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT

www.iesunibhi.com
uni@iesunibhi.com
TEL: 943 20 84 44

www.facebook.com/iesunibhi

@UniEibarErmua

ASTEAN ESANAK

"Zaila izan behar da zure bizitzaren kontrola galtzea eta beste batzuk zuek erabaki dezaten lagatzea. Uste dut badagoela une bat bizitzan, azkenaren aurrean, errazegia izan daitekeena munduarekin haserretzea. Egile baino behatzaile bihurtzen zarenean"

(KARMELE JAIO, IDAZLEA)

"Gure gizartean ez da baloratzen enpresaria izatea eta azken hamarkadetan ekintzaileek nahiago izan dute isilean lan egitea. Ekintzailea izanda, gauzak ondo joan bazaizkizu edo arrakasta lortu baduzu, txarto begiratuko dizute. Hortik konfliktu, inbidia eta kritika asko sortu dira"

(EDUARDO ZUBIAURRE, ENPRESARIA)

"Egia beti iraultzailea delakoan nago, baina nork behar du iraultza bat bere bizitzan? Oro har, gizon izan edo andre izan, moztortzen dugu gure burua, horixe da eta gure gizartea. Dakidana da gaur egun askoz gehiago direla hiltzen diren euskaldunak jaiotzen direnak baino; hala izanik, nekez irudika dezaket etorkizunik guretzat"

(XABIER MONTOIA, ABESLARIA)

"Eibar Foball Taldea derrepentean nire bizitzako bigarren talde faboritua bihurtu da, Malagaren atzetik. Zer egingo diot ba, nire adinean! Ez da ahularen alde jartzeagatik, indarra ez baita nahastu behar kontu korrontearekin"

(MANUEL ALCANTARA, ZUTABEGILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

KANDELERIXO.- Kandelaria eguna. "Kandelerixo egun baten izan zan ha ipoiña".

KANDELIA JASO.- Baserritarren elkarrekin presidentek kargua beste bati ematen zionean honek kandela jasotzen zuen. Hortik esanahia zabaldu egin da gaztelarazko 'darse por aludido' adierazteko. "Kofradixakua danak kandelía jasoko dau".

eskutitzak

GERRA "INZIBILAREN" FRONTE ODOLTSUA ELGOIBARREN

Roman Garate naiz; beti irakurtzen dut, oso gustora, zuen aldizkari jatorra. Ze, Elgoibarren jaioa izan arren, hor "biharrean" eman nituen zazpi urte, eibartarron giro maitagarrian. Eta zuen 889 zkiko. alean, hutsune bat dagoela deritzot. "Fronte bixak zazpi hillebete mendixan" artikuluan, ez da azaltzen, inola, Elgoibar. Eta bertan, Elgoibarren, Kalamua-Arrate bitartean, izan genuen gerra "inzibilaren" fronte odoltsua. Neuk, Elgoibarko beste bi lagunekin (Joshe Zubiaurre eta Felipe Gabilondo) ikusi

nituen ikustekoak goraino igoz. Hildakoak, Arrate-Kalamua artean, gorputzetik ebakitako buruez (buruez) kontatzen. Morteroz hildakoak, gehienak. Arrisku ikaragarrien artean gu, umeok. Leheritu bariko bonbez zegoen eta josita, fronte hura. Arrateko baserri handian, ehunka galeta kaxak, ikutu gabe. Zuen artikuluan interesgarria osatzekotan edo... idazten dizuet, eskerrak emanez zuen (gure) aldizkari txalogarriagatik!

ROMAN GARATE GOTAZUN

MENDE ERDIAREN ATARIAN

Ernonka polita geneukan 49. Euskal Jairako: iaz hasitako bideari jarraipena ematea, hain zuzen ere, jarraipena eman eta gauzak hobetu, ekimenetan zein antolakuntzan. Berriro ere egitarau zabal eta ahalik eta osatuen antolatzen saiatu gara: jolasak, musika, nekazaritza, artisautza, herri kirolak, bertsolaritza, trikitixa, kantuak, erromeria, dantza jaialdia, dantza herrikoiak eta aurten, lehenengo aldiz, magia ikuskizuna. Horrek guztiak ez du zentzurik zuen partehartzerik gabe eta, berriro ere, erantzun bikaina jaso dugu, giro ederra eta euskaldunean, gure kulturari blai eginda, ondo janda, edanda eta dantzatua... gure kultura beste behin ere aldarrikatuz eta gozatuz.

Gauza jakina da honako Jai baten atzean lan izugarria dagoela, eta idatzi honen helburuetako bat lan izugarri hori eskertzea da. Eibarko Txirixoa, Gazte Gogor, Ipuru, Jaiki, Kamarroak, Legarre Gain, Umbe, Zatixa, Bide Alde eta Ondo Nahi elkarte gastronomikoei zorianak berriro ere; Direna Banaketak, Oberena harategia eta Urkotronik-i mila-mila esker; Untzagan jarritako sukaldean lanean egon zinetenei; harrikoa egin zuten; Iturbururi; zerbitzatzen, muntatzen, desmuntatzen, barran eta

abar ibili zineten hamarnaka lagunei; zapatuan azoka muntatu eta desmuntatu zuen kuadrilari; propaganda eta janari banaketa egin zuten; komunikazio lanetan ibili zaretenei eta "la vieja guardia"-ri; Eibarko kantuzaleak taldeari; Eibart elkarteari; Arrate Kultur elkarteari... Zorianak eta mila esker, zuek bilakatzen duzue eta Euskal Jaia denon Jaia, partehartzailea eta herritarra, antolakuntzatik hasita.

Eskerrak baita ere Udalarri, Euskera sailari eta Debelemi eta zelan ez Deporri urtero erakusten duen jarreagatik eta egiten duen lanagatik. Datorrena 50.a izango da: Euskal Jaia Eibarko historian sartzera doa. Aukera paregabea dugu zer nolako Euskal Jaia nahi dugun denon artean erabakitze eta eraikitze; hori da gure nahia eta, horregatik, ahalegin bereziak egingo ditugu denon partehartzearen aukera bermatzeko. Ekainean bertan hasiko gara honetarako lanean. Esan gabe doa Deportiboko ateak zabal zabalik daudela edozein mailako ekarpenak egin ahal izateko. Beraz, animatu eta landu gurekin batera zure Euskal Jaia!

KLUB DEPORTIBOKO KULTURA BAZTORDEA



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. HELBIDEA: Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. FAXA: 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILAK: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com Elkartearen E-MAILAK: elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. KOORDINATZAILA: Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. HIZKUNTZA ARDURA: Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tfnoa: 943 20 67 76. AZALA: J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDUARDUNA: Ainhoa Luz. TIRADA: 8.100 ale. INPRIMATEGIA: GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! LEGE-GORDAILUA: SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Makiña-erreminttaren azokia BEC-en astelehenetik aurrera

Urte birik behiñ egitten dan azokia indartuta itzuliko da eta 27 estatutako 1.314 enpresa alkartuko dira Barakaldoko BEC-en, astelehenian egindako prentsaurrekuan Mari Carmen Gorostiza azokako zuzendarixak eta Arantza Tapia Jaurlaritzako Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak esan zebenez. 28. Biemh-an, makiña-erreminttarekin lotutako produktu eta zerbitzuen azokan, aurreko aldiari baino %12k gehixagok hartuko dabe parte, eta tartian gure herriko hainbat enpresa ere izango dira; enpresa erakusketarien %57 atzeritarrak izango dira. Gaiñera, 800 makiña inguru izango dira, gehixenak funtzionamenduan ikusteko aukeriarekin.

Makiñak hainbat sektoretan egongo dira banatuta: txirbil-harroketa bidezkuak, osagarrixak, deformaziño bidezkuak, bestelako ekipuak, CAD/CAM metrologia eta kalitate kontrola, osagai hidrauliko, pneumatiko eta elektronikua, zerbitzuak, eta robotika eta oxiebaketia. Berrittasun moduan, jardunaldixak antolatuko dittue azokan eta, bestalde, Biemh-ek enpresen katalogua sortu dau eta, gida horretan, 1.600 produktu ageri dira.

IK-4Tkniker eta "Manufacturing"

Eibarko enpresa teknologikuak bere az-



Robot bi-manipulatzailia, pieza haundixekin ibiltzeko makiña autoportabilia eta metrologia aurreratutako sistemía erakutsiko dittu Tenikerrek.

ken barrikuntzak erakutsiko dittu fabrikan zaiñuarekin edo "manufacturing" arluarekin lotutakuak, makiña-erreminttarekin zuzenian lotutakuak. Martitzenian, goizeko 11.00etan, aurkeztuko dittu produktuak komunikabidien aurrian

Geoparkien Astia eta gune barrixa

Atzo hasi eta ekaiñaren 8ra arte Europako Geoparkien Astia egingo dabe laugarrenez Euskal Kostaldeko Geoparkia osatzen daben hiru udalerrixetan, Zumaiñan, Deban eta Mutrikuñ. Oin dala egun batzuk Debako Turismo Buleguan egindako prentsaurrekuan emon eben ezagutzera egunotarako preparau daben programia eta jarraixan buleguan bertan Geoparkiar eskindutako erakusketagune barrixa inaugurau eben. Gune barrixaren sarrierarako, bestalde, Juan Antonio Palacios eibartarrak Sakonetan egindako argazkixa aukeratu dabe.



Eskualderako plan gastronomikuak

Debabarrenian martxan ipiñiko daben Euskal Gastronomika proiektu turistiko-gastronomikua presentau eben atzo goizian Arrate Kultur Elkarteko Topalekuan Arantza Madariaga Basquetour-Turismoaren Euskal Agentziako zuzendarixak eta Juan Angel Balbas Debegeesak zuzendarixak. Horrekin batera, Debegeesak debabarrenaturismo.com atarixan sortu daben atal barrixa presentau eben. Aurrieratu ebenari jarraituta, atal barrixak ekaiñan, datorren asteko eguenian bertan hasitta Debabarrenan egingo diran hainbat esperientzia gastronomikoren barri emongo dau, bestiak beste.

EH Bildu nagusi Eibarren, EAJ-k oso gertutik jarraituta

Emaitzak ezagutzera emon zebenian alderdixetako ordezkarixekin berba egin genduan, euren baloraziña eskatzeko. EH Bilduko **Leire Abanzabalegik** "emaitzekin oso pozik" zeguan: "Emaitzak begirata, Eibarren behingoz aldaketa emoten hasi dala ikusten da". EAJ-PNV-ko **Miren Sojo** ere pozik agertu zan: "Bildukuen eta guriaren arteko aldia oso txixixa dalako".



PSOE-ren emaitzen inguruko balorazioa **Miguel de los Toyosek** egin zeskun: "Herri maillan gure alderdixak emaitza ona lortu dau. Estatu maillan, baiña, jaitsiera haundixa izan dugu eta horren inguruko hausnarketia egin bihar dugu". **Carmen Larrañagak** (PP) irabazi egin zebela esanda be, "garaipen tristetzat" jo zeban domekakua. **Eli Gomez-ek** (IU-Eki) pozgarrizat jo zittuan bere alderdixak lortutakua: "Parlamentari bakarria izatetik sei izatera pasatu garelako".

Eibarren

EH Bildu: 2.285 (%25)

EAJ: 2.212 (%24)

PSE-PSN: 1.955 (%21)

PP: 767 (%8)

Podemos: 555 (%6)

Ezker Anitza: 478 (%5)

Geltoki Market azokia

Bixar 10.30xetatik 15.30xetara Geltoki Market bigarren eskuko azokia egingo dabe Estaziño kalia, inguruko dendariak osatutako Zona 10 alkartia antolatuta. Antolatzailiak esandakua arabera, bixarko azokan 70 postu ipiñiko dittue, denetariko eskintzarekin: GKE-iak, jatekuak eta gozogintza saltzekuak, bigarren eskuko gauzak saltzeko eta alkartrukatzeko postuak (Zarauztik etorriko dan mutillak altzarixak janarixarengaitik kanbixauko dittu)... Kalia girotzeko, musikarekin batera, haize-errotatuak ipiñiko dittue eta eguardixan 150 lagunendako paelia preparauko dabe (plateria 5 eurotan salduko dabe, edarixa barne). Aittatutako guztiekin batera, zozketa berezixa be egingo dabe, zeozer erosten daben guztien artian Zona 10 alkarteko dendetan gastatzeko 50 euroko erosketa-txartel bi oparitzeko eta, gaiñera, azoka egunian inguruko dendetan deskontu bereziak egingo dittue. Aurrerago antolatu-tuko dittuen azoketan parte hartu nahi dabenak, geltoki@karta.com helbidera idatzita antolatzailiekin kontaktuan ipiñi leike.



autuan

ARMAGIÑERI DEIXA

Bixar gabian Eibar K.E.-ia lehen maillara igo dala ospatzeko egingo dan kalejiran, bestiak beste, armagiñen konpainia juango da eta hori osatzeko jende billa dabiz: parte hartu nahi dabenak ahalik eta bizkorren Ipurua tabernara juan biharko dau, arma-baimena, eskopeta-gida eta NAN-a eskuan. Ekitaldirako erropak antolatzailiak lagako detsez eta ekitaldixak ordubete inguru iraungo dau, 22.00xetatik 23.00xetara.



KALERATZEAK STOP

Datorren asteko eguenerako hitzaldixa antolatu dabe Debabarreneko Kaleratzeak Stop-ekuak, 19.00etan Portalean. Jose Maria Erasukinek egingo dau berba, "Sentencia por intereses abusivos del IRPF" izenburuari jarraituta.

Etxeberria, Espaiñiako Sarixetan finalista



Roberto Lopez Etxeberria diseñadoria Espaiñiako Industria, Energixa eta Turismo Ministerixuak antolatu-tako Moda Sarixen lehen ediziñuan "Balixo Barrixak" atalerako finalista aukeratu dabe, beste 15 lagunekin batera, sarixa jasotzeko aurkeztu dittuen 71 hautagai-xen artian. Carlos Espinosa de los Monteros "Espaiñia Marka"-rako Gobernuaren ordezkariak buru dakan epai-mahaixak atzo bertan erabagi bihar eban finalisten artian zeintzuk jasoko daben sarixa. Espaiñiako Modaren Industriaren biharra eta izena aitortzeko asmuarekin sortu dittuen sarixak aurrerantzian urtero banatzeko asmua dake eta, bost modalidade bereizitta, modaren munduan bikaintasuna eskuratziarren eging-dako ahalegiñak saritzeko erabili nahi dittue.

APDEF

Asociación para la Defensa de
Perjudicados de Entidades Financieras
Finantza-Erakundeek Kaltetutakoen
Babeserako Elkarte

PARTE-HARTZE PREFERENTEEK, MENDEKO ZORRAK, LUR-KLAUSULEK,
BANKIAKO AKZIOEK ETA FAGOR ETA EROSKIKO MENDEKO FINANTZA-EKARPENEK
KALTETUTAKOENTZAT

BILERA INFORMATIBOA EIBARREN

Ekainaren 3an, martitzenean, 19.00etan
Unzaga Plaza Hotelean (Ego Gain, 5)

SARRERA LIBREA, AFOROA BETE ARTE

17.00etatik 19.00etara arte, hotel berean, APDEF-ak pertsonalki
eta doan hartuko ditu partikularrak eta elkarteak

APDEF: Finantza-Erakundeek Kaltetutakoen Elkarte

Tfnoak: 943 28 92 11 eta 607 610 487

asteko 500 datua

etxe egittia aurreikusten dabe Txontan, astelehenian egingo dan plenuan Plan Orokorra aldatzen badabe behintzat. Euretako %40 Babes Ofizialekuak izan biharko dira eta beste 35 botako diran realojuak hartzeko izango dira.

Banatu dittue Toribio Etxebarria Sarixak

Eguazten arratsaldian banatu zittuen Toribio Etxebarria sarixak, Coliseo antzokixak hartu eban ekitaldixan. Urtero lez, epaimahaikuak aukeratutako finalisten artian irabazliak zeintzuk ziran ekitaldixan bertan emon eban aditzera: Enpresa Asmuak Sarixa "Brain Cloud Computing" garun-irudixak



prozesatzeko zerbitzuetan aditua dan enpresakuak jaso dabe; Enpresa Asmoak atallean, Arlo Teknologiko Sarixa "Arima" (HDIV web segurtasunerako softwarea) sarittu dabe; Enpresa Barrixak ataleko Sarixa "DNA Data" (gaixotasun genetikuen diagnostiko molekularrerako produktu eta zerbitzuak) jaso dau; eta Nazioartekotza Babesa Sarixa-Enpresa Barrixa Sarixa "Irisbond" (ordenagailluen begirada bidezko kontrolerako sistemian) enpresandako izan da. Eta lehia-ketatik kanpora, ekimen enpresarial eibartarrari aitortpena ABC (Arizaga, Bastarrica y Cia) konpresore-enpresariari egin detse.

Errigorako kontserben eskaintza

Errigora alkartekuak, apirillian egindako olixo-kanpaiñiak euki eban arrakastarekin animauta eta jendiak horrelako gehixago egitteko eskatu ebalu ikusitta, oin konserba-lotien eskintza berezixa preparamau dau: bertan hazittako menestria (720 ml-ko 6 pote 14 eurotan), alkatxofak (720 ml-ko 12 pote 42 eurotan), piparrak (314 ml-ko 12 pote 27 eurotan), esparraguak (425 ml-ko 10 lata 28 eurotan), esparrago ekologikuak (460 ml-ko 12 pote 54 eurotan) eta potxak (720 ml-ko 12 pote 21 eurotan) ekoizliaren prezian eskuratzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak. Eskaeriak ekaiñaren 11rako egin biharko dira, eibar@errigora.org helbidera idatzitta (banaketia 18tik aurrera egingo dabe). Horrekin batera, Eibarren Errigora-saria sortzeko asmuarekin, jendia ingurukueri eskintzaren barri emotera animau nahi dabe.



On Ekin lehiaketia martxan

Bittor Sarasketa kaleko BEKtokixan maiatzaren 16xan egindako elkarEKIN Berreibar, Ekingune eta Berreibar alkartiak alkarlanian antolatutako saiuan 50 lagunetik gora alkartu ziran.

Ekitaldixan bakotzak bere proiektua bestieri ezagutzera emon zetsan eta parte hartu eban ekintzailiak, bestiak beste, arazuak, premiñak, zailtasunak eta konponbidiak partekatzeo aukera paregabian euki eban. Bestalde, eta iazko esperientziak euki eban arrakasta ikusitta, aurtan be On Ekin enpresa ideia eta proiektuen bigarren lehiaketia antolatu dabe, "sormena bultzatu eta pertsona zein enpresen ekimenak laguntzeko asmuarekin". Fase bi egingo dira: lehelenguan hainbat ordezkari osatutako epai-mahaixak lehiaketara pre-



sentatzen dittuen proiektu eta ideien aurrebaloraziñua egingo dau (ekaiñaren 27ra arte jasoko dittue) eta bigarren uztaiñaren 10ian egingo da, iazko moduan antolatuko daben afarira juandakuak hiru finalisteri botua emonda. Irabazliak afarirako txartel salmentan batutakuaren erdixa eta 500 euro jasoko dittu; bigarrenarendako sarixa Ekingune alkarteko kide izateko urtebeteko kuota pagauko detse; eta hirugarrenari Ekinguneko webgunian eta sare soziale-tan bere biharra ezagutzera emoten lagunduko detse.



Hizkuntza Eskolakuak Londresen

Eibarko Hizkuntza Eskolako 32 ikasle Londresera bidaian jua ziran maiatzaren 8tik 11ra bittartian, "hirixa ezagutzeko eta ingelesa praktikatzeko". Handik bueltan kontau deskuenez, "zoragarri pasau genduan eta datorren urtian atzera be bialja egitteko asmua dakagu".

TANTANEZ TANTAN: euskeraren giza katea badator

Bihar, zapatua, eguerdiko 13.00ean, hitzordua dugu Eibarko euskalzaleok. Tantanez Tantan Eibarren euskaraz bizi edo Gantxilla Eguna ospatuko dugu Urkizutik abiatuta. 4. edizioa beteko duen honetan ere, herritar guztiak Eibarren ere euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatuko dugu. 60 talde inguru daude gonbidatuta, baina deialdia herri osoari egin dio Eibarko euskalgintzako taldeak. Urkizu eta Untzaga giza katearekin osatu behar da eta ezinbestekoa, beraz, denon parte-hartzea.

13.00ean Urkizuko iturrian, Gurasoak Berbetan egitas-moko parte-hartzaileek beteko dute gantxilla urez, eta

hortik aurrera, eskuz esku, Untzagaraino eramango dugu. Bertan, taldeko argazkia atera, euskeraren aldeko aldarrikapena irakurri, egun horretarako propio sortutako bertsoa abestu eta euskal dantzak egingo dira. Ekitaldi amaierako aldarrikapena, Klub Deportiboak irakurriko du, aurtun 90 urte betetzen ditu-eta.

Saman koadrodun zapia lotuta, gantxilla eskutik eskura pasatzeko gogoa eta euskeraz bizi nahi dugula aldarrikatu nahi izatea. Horixe, besterik ez, euskalzaleok biharko ekitaldian parte hartzeko beharko duguna. Tantanez tantan Eibarren euskaraz bizi!



Ekitaldiaren parte-hartzaileak

URKUSUTIK IBARKURUTZERAÏÑO

Asola Berri / Urkizu Herri Ikastetxea / Juan Antonio Mogel Ikastola eta bertako Guraso Elkarte / Gaztetxea / Gorantz abesbatza / Trikitilariak / Andirao baserritarren Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkartearen bazkideak / Berbetan / J.A. Mogel Ikastolako hantkapaloak / La Salle Azitain / Aldatze / Hizkuntza Eskola / Eibar arte / Ustekabe / Sindikatuak / Badihardugu / Armeria Eskola / Gure Esku Dago

IBARKURUTZETIK ANBULATORIXORAÏÑO

Dendarien Elkarte / Debabarreneko Bertso Eskola / Itzio BHI / Ignacio Zuloaga institutua / San Andres ikastetxea / Jaixak Herrixak Herrixantzako / Usartza Txistulari Taldea / Ikasten / Kaleetan Kantuz / Nagusien komisia / Legarreko musika taldeak / Zeramika Eskola / Marrazki Eskola / Alderdi politikoak / Txirindulari Elkarte / Sostoa / eibar.org / Emai / Zona 10 / EHE / Eibarko Kantuzaleak

ANBULATORIXOTIK UNTZAGARAIÑO

AEK / Udal Euskaltegia / Urbat / Eibar Rugby Taldea / Eibar Kirol Elkarte / Aspe / Arrate Kultur Elkarte / Arrateko Andra Mari ikastetxea / La Salle Isasi / Klub Deportiboa / Musika Eskola / Amaña ikastetxea / Urki Futbol Taldea / Unibertsitate Laborala / Dantza Garaikidea / Eskubaloit Taldea / Haur Eskolak / Eskozia La Brava / Bihurri



Untzagan aldarrikapena irakurri, bertsoa abestu eta euskal dantzak egingo dira. Aldarrikapena Klub Deportiboak irakurriko du. LEIRE ITURBE

BERTSOA

1)

*Urkusuko iturrian
nagusi, heldu, haur
euskalzaletasunak
elkartu gaitu gaur.
Untzagaraino goaz
pozik eta ziur
aho bete euskara
gantxilla bete ur.*

2)

*Gantxilla eskuz esku
eta buruz buru,
elkarlanari esker
Untzaga helburu
bidean ongi doa
poliki, seguru.
Euskararekin berdin
egin behar dugu.*

3)

*Guztiok euskararen
alde egon arren,
hori nahikoa denik
ez pentsatu arren.
Begiratu gantxillak
zer mezu dakarren:
Euskara hutsez bizi
nahi dugu Eibarren.*

DOINUA: "Triste bizi naiz eta..."

Gure artean 18 urte egin eta gero, Santutxun jaiotako Jon Aristondo karmeldarra Gasteizera joango da hiru urterako, karmeldar oinutsen Nafarroako San Joakin Probintziako arduradun berria izendatu baitute. Erantzukizun handia hartu duela dio, "nire gaitasunen gainetik ikusten dudana". Karmengo Parrokiko etxeko nagusia izateaz gain, Azitaingo parrokoa izan da azken urte eta erdian eta irailetik baita Estaziño kaleko San Agustin parrokiakoa ere. Gure artean pozik izan dela dio eta ez du baztertzeko berritza.

JON ARISTONDO (karmeldarra):

"Eibartarrokina oso gustora sentitu izan naiz urte guztiotan"

- Ez da denbora asko Azitaingo eta Estaziño kaleko San Agustin parrokiako parroko izendatu zizutela? Zein egoeratan gertatu dira parrokiak horiek?

Ofizialki Gasteizen bizi banaiz ere, oraindik zapatuero etortzen naiz eta aste-buruetako mezak ematen jarraitzen dut. Horrela segiduko dudalakoan nago, San Juanak arte behintzat, eta beste fraide bat etorri arte. Elizkizunak egiteko orain arte moduan jarraituko dugu: hor badago andra talde bat prestutasuna erakutsi duena azken urteotan.

- Zenbat urte dira Eibarrera etorri zirela? Zelako jendearekin egin duzue topo parrokiaren bizitzan?

Badira 18 urte etorri nintzela eta, orduetik, Karmeldarren parrokiaren egon naiz beti. Gainera, ez diot aterik itxiko esperientzia honi eta badut berritza bueltatzeko go-go. Auskalo zer gerta daitekeen! Karmengo parrokoa izateko etorri nintzen 1996an komentura eta kargu horretan egin nituen hamabost urte; azken hiruretan, bestalde, etxeko nagusia izan naiz. Gaur egun bost fraide gaude; meza eurretako bik bakarrik eman badezakete ere.

Bestalde, eibartarrokina oso gustora sentitu izan naiz eta bihotzetik estimatzen dut eskaini didazuena. Hitz egiteko jende aproposa aurkitu izan dut. Hori bai: izan daiteke, zoritxarrez, nire arlotik irten ez naizelako, harreman gehiagorik ez landu

izana. Eta, baten bati min egin badiot, nahigabe izan bada ere, aprobetxatu nahi dut barkamena eskatzeko.

- Zelako bilakaera nabaritu duzue azken urteotan parrokiaren? Jendea elizatik aldentzen joan da?

Gero eta jende gutxiago etortzen da, egia da. Gure jarraitzaileetako askok zeruko bidea hartu dute eta erreleborik ez da izan. Gauza asko aldatu beharrean gaudelakoan nago: sakramentuak, ospakizunak... gaurko mundura egokitu beharra dago. Geldoegi goazen susmoa badut. Elizak hainbat akats egin ditu eta jendeak ez du astirik, atsedean hartu barik bizi da: lana duenak lanpetuta dagoelako eta ez duenak bila diharduelako. Emakumeak gehiago dira hona datozenak, baita lan egitera ere. Borondatez eta fin lan eginez.

- Zelan egin zinen karmeldarra eta ez beste konpainia batekoa?

Santa Teresaren eta Juan Gurutzekoaren pentsamentuei jarraituta, otoitz pertsonalaren alde eginez. Eurek zioten moduan, Jaungoikoak denok maite gaituela kontzientzia hartuta.

- Zelako azpiegitura duzue karmeldarrok gaur egun?

"Hamabi bat urte dira Mari Tere Arrieta Boli Kostan gaixoei laguntzen dabilela"



Gizonezkoen 18 komunitate erlijiosoen nagusi probintzial kargua hartuko dut eta horretan ahalegindu behar dut 2017ra arte, elkarte eraikitzen. Euskal Herritik kanpo, Kantabrian eta Errioxan dutugu komentuak eta bat Madrilen. Estatuan sei probintzietan gaude banatuta eta Frantzia bitan. Monjenak, bestalde, 15 komentu dira: Zaldibarren, Zarautzen, Hondarribian eta Donostian baditugu. Hilaren 26an amaitu genuen agintarien aldaketa eta prioreen hautaketa. Arazoen artean fraide ez eta adina dira aipatzekoak: gure probintzian 35 urteko lau fraide baditugu ere, batzbesteko adina oso altua da.

- Zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?

Zerrenda luzea bada ere, gaur egungo gizarteari ebanjelioaren altxorra eskaintzea nabarmenduko nuke. Otoitza dugu Jaungoikoarekin hartumana izateko bide nagusia: horrek guztiak esperientzia mistikoa eta 3. eta 4. munduaren aldeko konpromiso solidarioa barne hartzea bultzatzen gaitu, jarrera osagarriak dira-eta..

- Badira hainbat urte parrokiaren jasotzen duzuenarekin Mari Tere Arrietari ere laguntzen diozuela...

Bai, hamabi bat urte izango dira Mari Tere Arrieta Boli Kostara joan zela eta han dihardu, ospital batean, *buruli* sukarraren ondorioak jasaten dituztenei laguntzen eta zaintzen. Bere aurretik Miriam Fernandezek ere jaso zuen gure laguntasuna.

**zerbitzua euskaraz
eman nahi dizugu**

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetgia erantzuteari eta parte hartu produktu kulturalak erosteko 50na euroko 3 bonoren zozketan



**bete hemen
galdetgia**

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

Zeiñek esan, ezta??? Eskuratu dabe, ba! Hamendik aurrera kontuz egitten dozen apostuekin, Eibar FT-k edozer gertau leikiela erakutsi detsa mundu guztiari-eta! Zoriontziaz aparte, oin lortutakuekin gozatu eta ospatzia besterik ez jaku geratzen. Bixar bertan gure kaliak Sanjuanak prestatzen juateko moduko jaixa biziko dabe behiñ Eibar-Lugo partidua amaittuta. Eibar Foball Taldiak, Eibarko Udalak eta Hierros Servando taldiaren babesle nagusixak antolauta, ospakizunak gabeko 22.00etan hasiko dira Urkizutik. 150 bat lagunek osatutako komitibia juango da jokalarixak, teknikuak, zuzendaritzakuak eta beste eruango dittuan autobusarekin. Buruan gaitero eskoziarra juango da, jarraixan kamioia bi bonbekin konfetixak botatzen eta girua txaranga batek ipiñiko dau. Armagiñen konpaiñia batek ohoria egingo detsa herrixari, kale-antzerkiko beste konpaiñia batek jokalarixak ordezkatuko dittu, buru-haundixak eta dultzaiñeruak be ez dira faltako, beste txaranga bat atzealdian juango da eta banderen alardiak aurria hartuko detsa amaieran juango dan autobusari. Desfiliak ordubete iraungo dau gitxi gorabehera. Udaletxian 23.00ak aldera egingo detse harrerria. Gero, DJ-aren saiuu egongo da. Eta goizian, Eskozia La Bravaren eskutik, kapital-zabalkuntzarako txosnia.



Harrobixa indartsu dator 1. maillara!!!

UTOPIA


baino askoz GEHIAGO




Ipuruako emaitza ona izan bazan, kanpotik etozenak zer esanik ez!



Hamaikako honek 75 urtetan eziñezkua zirudixena lortu dau.



Zorionak, Eibar!!!!



Go! Brasil serie berezia

Zure selekzioak markatzen badu, zu irabazle.

Hyundai bat erosten baduzu, zuk aukeratutako selekzioak markatzen duen gol bakoitzeko, zure finantziarioaren kuota bat bueltatuko dizugulako. **GOL 1 sartzen duela, kuota 1 gutxiago.** Zure selekzioa bikain dabilela eta Mundialean 15 gol sartzen dituela, 15 kuota deskontatuko dizkizugu. Jakin badakizu. Mundial honetako golak askoz gehiago gozatzen dira.

GOL 1 = KUOTA 1 GUTXIAGO
15 GOL = 15 KUOTA GUTXIAGO

150€-rainoko itzulketa kuota bakoitzagatik.

Etorri Hyundai bat probatzera ekainaren 16a baino lehen eta 2rendako Hyundai Esperientzia baten zozketan sartuko zara, hotel-gaua eta Madrilgo Club del Fan Park zonara joateko sarrekin. Jakin zelan Hyundai.es/tuganas helbidean.

AUPA EIBAR! ELGOIBARKO OARSO CAR-EN EROSITAKO HYUNDAI BAKOITZEKO, OARSO CAR-EK EIBAR FT-REN 5 AKZIO EROSTEKO KONPROMISOA HARTZEN DU.

Promozio baliagarria 2014ko ekainaren 30era arte Elgoibarko Oarso Car-en erositateko autoentzat.

HYUNDAI NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR ELGOIBAR

Olaso Poligonoa, 17. 943 74 14 80

OIARTZUN	BEASAIN	IRUN
Lintzirin polig., 1	Errepide Nazionala., 1	Juan. Labandibar., 43
943 49 48 30	943 80 40 54	943 63 97 69



Garantia sin limite de km.

Gama i30 eta ix35 Go! Brasil:
CO2 igorpenak (gr/km): 109-182.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,1-6,9.

Eskaintza baliagarria 2014ko maiatzaren 20tik uztailaren 13ra arte gama berriko Hyundai bat Hyundai Sare Ofizialeko kontzesionario batean (www.hyundai.es helbidean eskuragarri) erosi eta erosiketa hori Santander Consumer EFC, S.A.-rekin finantziatuko dituzten Penintsulan eta Balearetan bizi diren partikularrentzat. Promozio mugatua gehienez 15 kuotetara. i30 1.4 Mpi 100 CV KLASA-erako itzultze-eredua, Penintsula eta Balearetan gomendatutako 11.950€-ko PVP-arekin, hilaren amaierara arte baliagarria, BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE 5 Plana (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzen bete beharri lotuta) barne. Kuota bakoitzeko gehienez jota 150€ bueltatuko dira aipatutako modeloerengatik, eta muga 15 kuotetan dago. Ez dira golak modura kontabilizatuko jokoaaren arauzko denboratik kanpo lortutakoak (penalti txandak), ezta anulatutako golak ere. Gutxieneko zenbatekoa aipatutako modelo finantziatzeko: 11.000€ 48 hilabeteko gutxieneko epean. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziarioa. Ikusgai dauden modeloak: i30 Go Brasil Plus eta ix35 Go Brasil Plus. Kontsultatu i10, i20, i30, i40, ix35, Veloster, Elantra, Santa Fe eta Grand Santa Fe modeloetako itzultze gehienezko zenbatekoak eta finantziatzeko gutxienekoak promozio honetako legezko oinarrietan, www.hyundai.es/tuganas helbidean argitaratzen direnak.

Lau eibartar Zegama-Aizkorri mendi maratoian

Maila bikainean jardun zuten, gainera. Batez ere Ander Barreneaxeak (54. postuan sailkatu zen, 4h36'19"ko denborarekin) eta Jose Mari Bernedok (87. postuan, 4h48'35"). Atzerago helmugaratu ziren Iñaki Lopez de Gereñu (353.a, 6h31'58") eta Aitor Lameiras (362.a, 6h33'58"). 540 korrikalarik hartu zuten parte proban eta, euretatik, 463 iritsi ziren helmugara, tartean 36

emakumezko. Proba Kilian Jornet kataluniarrak irabazi zuen, zazpigarren aldiz, eta baita marka ezarri (3h48'38"); bi minutu justu atera zizkion Marco di Gasperi italiarrari eta 21 segundo gehiago Luis Alberto Hernandori. Emakumezkoetan ere errekorra ezarri zuen Stevie Kremer irabazleak eta Maite Maiora elgetarra 3. postuan sailkatu zen.



Kilian Jornetek zazpigarren aldiz irabazi zuen.

Asola Berrik hiru txirlo txapelketako jaurtialdia hartuko du bihar



Olaitz Rodriguez nagusi da emakumezkoetan.


Gipuzkoako txapelketaren 45. edizioa oso borrokatua doa eta Arkaitz Rodriguez liderrak etxean jokatuko hamargarren jaurtialdia. Floreagan, 60 bolarirekin, jokatutako azken jardunaldiaren ondoren, eibartarrak txirlo bateko alde ateratzen dio San Migueleko Angel Ibarluzeari, bikoa Bittor Astigarraga taldekideari eta Elgetako Sebas Aranzabali, hirukoa Antonio Ibarluzea (Elgeta) eta Jose Antonio Nuñezi (San Andres) eta laukoa Asola Berriko Ibai Diez eta Bittor Ugartebururi eta Floreagako Gorka Etxanizi. Taldekako sailkapenean, Asola Berri A da nagusi: 14 txirloko alde ateratzen dio San Miguel A-ri eta 25ekoa Asola Berri B-ri. Binaka Bittor biak (Astigarraga eta Ugarteburu) doaz aurretik, beterranoetan Astigarraga, emakumezkoetan Olaitz Rodriguez (9 txirlo ateratzen dizkio Lasurreko Esther Goenagari) eta jubenetan Egoitz Blanco, guztiak ere Asola Berriko ordezkariak



Bihar hasiko da Bailarako XVII. foball-7 txapelketa

Hogei taldek hartuko dute parte bihar hasi eta, uztailaren 18an jokatu den finalekin, amaituko den eskualdeko foball-7 txapelketaren 17. edizioan. Txapelketa, ohikoa denez, Unben eta Mintxetan izango da eta asteburuero zortzi partidu jokatu dira: lau zapatuetan eta beste lau domeketan. Ekainaren 28an jokatu den jardunaldiaren ondoren, Kopa abiatuko da uztailaren 4an eta finala eta 3. eta 4. postuak erabakitzeke neurketak uztailaren 18an jokatu dira Elgoibarko Mintxetan.

Andoni Mayo Bilbon.



Debabarrena areto-foballekoen asteburu beta

Gaur arratsaldean, 19.00etan hasita, zabalduko dute karpa Debabarrenekoek Elgoibarko Maalan eta bihar gauera arte hainbat ekitaldi prestatu dituzte 25 urte betetzen dituen Debabarrena areto-foballekoek. Pintxoak eta plater konbinatuak eskainiko dira karpan eta gauetz musika, ausartenendako karaokearekin batera. Bihar klubaren bazkaria egingo da 14.30etan eta, amaieran, sariak banatuko zaizkie klubaren taldeetako jokalariei onenei: Iraitz Olasagasti (2. B mailako Concepto Egile), Eduardo Sousa (jubenetako King Kong), Ander Santiago (kadeteetako Sukia), Ander Rio (infantiletako Sukia), Pablo Nieto (infantiletako Debabarrena) eta Jurgen Blazquez (alebinetako Debabarrena)



Deltecokoak Bilboko triatloi luzean

Pello Osoro izan zen Deltecoko ordezkari onena Bilboko ironman erdian (2.000 metro igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrika), sailkapen orokorreko 45. postuan: emaitza horrekin 23 urtetik azpikoen bigarrena izan zen. Atzerago sailkatu ziren Jonan Rodriguez, Andoni Mayo, Iñigo Villaba, Juanjo Romero, Moises Altuna, Jon Illarramendi eta Ibon Romero.

Urrezkoak Graxi Arregi eta Ipurua taldearentzat gimnasia

Zapatuan Ipurua kiroldegian jokatuako amateur mailako Gipuzkoako txapelketan, Ipurua Klubeko Graxi Arregik urrezko domina eskuratu zuen jubenetan, zinta eta mazekin egindako ariketan, eta Eibarko taldeak kadeteetan. Lorea Armendariz, Arrate Baroja, Miren Bastida eta Nerea Deza sokekin egindako ariketari esker igo ziren podiumaren gozakeria eta domekan Leioan izango dira Euskadiko txapelketan. Bihar, bestalde, Nahia Gonzalez probintziako azpitxapeladuna alebiretan Gasteizen izango da Eskola Jokoetan. Jubenetan, Arregirekin batera, Ane San Martinek brontzekoa lortu zuen zintarekin eta seniorretan Nahia Bilbaok zintarekin.



Ziara 3.a triatloiko Espainiako txapelketan

Eibartarrak Saltoki Trikienea klubaren hirukotea osatu zuen Nuria Rodriguez eta Ainara Pachecorekin eta brontzeko domina eskuratu zuen emakumezkoen taldekako sailkapenean. Aurreko asteburuan Tarragonako Antafullan jokatuako sprint distantziako triatloiko eta akuatloiko Espainiako txapelketetan, hirukoteak 750 metro igerian, 20 kilometro bizikletaz eta 5 km. korrika egin behar izan zuten zapatuan. Hurrengo egunean, akuatloien proban, hirukoteak 4. postuan amaitu zuen.



Koskorrendako foball-zaletuen Kopa

Faboritua izanda ere, ez zen garaipen erraza Koskorrek aurreko zapatuan lortutakoa, Esmorgak gogor egin ziolako aurre: partidua bina berdinduta amaitu zuten eta penaltiek erabaki zuten txapeladuna. Oierrek eta Garciak lortutako golei erantzun zieten Martinek Esmorgarako eskuratutako biak. Finalerako jokalaririk onena ere Esmorgakoa izan zen: Sergio Correa, hain zuzen.

Behin partidua amaituta, Liga eta Kopa txapelketetako sariak banatu ziren, honako koa droa osatuz: Durango, Ligako txapeladuna; Koskor, bigarrena; Txoko, hirugarrena; saria Kiroltasunari, Iruki; gol gutxien jasotako atezaina, Kuki (Durango); eta goleatzaile nagusia, Roberto Sevillano (EzDok).



Urbateko igerilariak Euskadiko eskolartekoan

Aurreko zapatuan Gasteizko Mendizorrotzan jokatuako 33. Euskadiko eskolarteko jokoetan, Urbateko igeriketa taldeak hiru ordezkari izan zituen eta euretako batek, Jone Ulaziak, brontzeko domina eskuratu zuen bizkar erako 100 metroko proban. Jon Osak eta Kimetz Bergaretxek ere aurpegia eman zuten eta ohorezko postuen borrokan izan ziren. Ez hori bakarrik: marka pertsonalak ere egin zituzten.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu teknikoak eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena









Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6
Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

GREMIOEN GIDA

ALTZARIAK

SATMOBEL
ZURE ETXeko ALTZARIEN KONPONKETA ETA GARRAIOA

Eibar - Tlf: 608 076 054

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

943 530 356 electricidad
688 674 242 **alberto**

INSTALAZIOAK ETA
instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA

WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

ANTENAK

BALATZ c.s.

Instalakuntzak eta konponketak
antenas - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

barra 677 51 24 62
943 20 06 97

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Tel. 610 532 922

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko urgentziak

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajttoficina.com tlf. 943 20 18 30

AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

CAMILO ALVAREZ IGELTSERITZA

OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Jardines Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

“Kerik Gabeko Gelak”-en diploma jaso du Ander Fernandezek

Ikasleak erretzen hasia sailhestea helburutzat duen Kerik Gabeko Gelak ekimenaren barruan, aurreko urteetan egindakoaren bidetik, hainbat jarduera landu dituzte DBH-ko ikasleek eta, ekimenaren barruan besteak bes-

te, Gipuzkoa mailan erretzearen kontrako kamiseta diseinatzeko logotipo lehiaketa egin da. Lehiaketan probintzia osoko 12 eta 14 urte bitarteko 4.370 ikasleek hartu dute parte, tartean Aldatze eta Itzioko 192 ikasleek; eskualde ba-

koitzetik bina lan aukeratu zituzten eta Debagoiena-Debabarrenean, Arrasate, Deba, Bergara, Mutriku eta Eibarko ikasleek aurkeztutako 24 lan pasatu dira kamisetaren diseinu irabazlea aukeratzeko hurrengo fasera. Eibartik aukeraturako diseinua Ander Fernandez,



Saritutako ikasleak gelakoekin batera jaso zuen diploma. SILBIA H.



Irabazlea Ana Rodriguez zinegotziarekin. SILBIA H.

Aldatzeko 2. DBH-ko ikasleak egindakoa izan zen eta, kamiseta-logotipo onenaren saria herritik kanpora joan bada ere, ikasleak eguaztenean udalaren eskutik diploma jaso

zuen, Ainhoa Tagle irakasleak eta bere gelakoek lagunduta. Saria emateko ekitaldia Julian Etxeberria kalean goizez ipinitako tabakoaren kontrako postuan egin zuten.

Osasuntsu jateko proposamenak Eskolako Agendako ikasleen eskutik



Ikasleek zinegotzien aurrean aurkeztu zituzten urtean zehar eskolan landutako proposamenak. DEBEGESA

Atzo goizean Eibarko udaletzeko pleno aretoan Eskolako Agenda 2013-14 egitasmoan parte hartu duten herriko hamar ikasleek kurtsoan zehar landu dituzten lanak aurkeztu zizkieten udalbatzari. Juan Antonio Mogel, Amaña, Urkizu, San Andres, La Salle Isasi, Arrateko Andra Mari, La Salle Azitain, Itzio eta Mogel Isasi BHI-ko ikasle-

ek aurrean landu dituzten proiektuak elikadura iraunkorraren ingurukoak izan dira eta atzoko batzarrean klasean landu dituzten berri ematez gain, parte hartu zuten zinegotzietan arlo horretan dauzkaten ekarpen eta proposamenak aurkeztu zizkieten atzoko saioan, hain zuzen ere Elikaduraren Nazioarteko Egunaren biharamonean.



ARRATE ETXEBERRIA


“ZURE BIZIPOZA, ZURE INDARRA, BETIRAKO GERATUKO DIRA GURE OROIMENEAN”

Ana, Javi; Arrate, Iñaki; Arrate, Javi; Josefina, Roberto; Marian, Juanra; Maria Luisa, Koldo eta Aratz, Eneko, Garikoitz, Naia.



Eibarren, 2014ko maiatzaren 29an

Udalak Errebalen erabilera inguruan deitutako lehiaketa arkitektonikorako proposamenak jasotzeko epea amaituta, epai-mahaikideek aurkeztutako en artean egokienak ikusi dituzten bost proiektuak hilaren erdialderako aukeratu zituzten: "Errebal Ireki", "Hiru Kubi", "Leku Eraikina", "Or Dago" eta "Agora Errebal", bereziki lehena gustatu zaiera azpimarratuta. Hala ere, eta lehiaketa deitu zutenean aurreratutakoari jarraituz, bost horiek jendeaurrean aurkeztuko dituzte arkitektoek: datorren martitzenean, 19.00etan Pleno aretoan eta hurrengo egunean, ordu berean udal-



txeko patioan prozesu parte-hartzailearen tailerra egingo da. Proiektu irabazlearen egileek 6.000 euroko saria jasoko dute eta udalak hori abiapuntutzat hartuko du lanak lehiaketara atera aurretik idatziko duen bete-beharrekoen orria erredaktatzeko. "Errebal Ireki" izeneko proposamena Ernesto Galvan Oliva, Unai Gomez Arriaran eta Mikel Aparicio Azpilicueta hirukotearena da. Azken hori lehiaketan parte hartu duen eibartar bakarra izan da eta, horregatik, zuzenean bere proposameneren berri emateko eskatu diogu.



MIKEL APARICIO (arkitektoa):

"ERREBAL inguruarekin modu naturalean integratzen ahalegindu gara"

- **Nondik nora doa "Errebal Ireki" zuen proposamena?**

Hasieratik garbi ikusi genuen Errebal oso puntu garrantzitsua dela Eibar barruan, batetik erdian geratzen delako eta, gainera, herria bitan banatzen duelako. Horrekin batera, aktuazioa planteatzeko orduan Eibarren oso espazio publiko gutxi dagoela kontuan hartu dugu eta, hortik abiatuta, herriarrei egokitutako espazio publiko berria sortzeko ahalegin berezia egin dugu, beti ere prozesu parte-hartzailetik atera ziren ondorioak kontuan izanik, horiek udalak berak ezarritakoak ziren-eta.

- **Eta nolako ezaugarriak dauzka?**

Errebal inguruko orografia zaila da, alde batean Muzategi alturan eta aldapan geratzen da, beste aldetik ere aldapa dago, altuera ezberdinak... horiek guztiak integratzeko ahalegini egin dugu, inguruan duen beste guztiarekin nahiko modu naturalean bat egin dezan. Eraikina baino gehiago, gu-

ne bat izatea lortu dugula oso ondo baloratu dute. Espazio publikoa sortzeko premia garbi ikusten genuenez, hori lortzeko goiko aldean parke itxurako espazio handi bat sortzea proposatzen dugu, 1.000 metroko azalera izango duen plaza, eguraldiaren eta bestelako beharren arabera estalkia ipini edo kentzeko aukerarekin. Oso flexiblea izateaz gain, Coliseoko plazarekin erlazionatuta geratuko litzateke. Gainera, Merkatu kalea oinezkoentzat laga eta trafikoa Pagaegi kaletik jaisteko aukera egon badago. Horrekin batera, eta parte-hartze prozesuan ezarritako ezaugarriari jarraituta, gure proposamenean aparkalekuak egiteko lur-azpiko solairu bi, konpartimendutan banatutako erabilera anitzeko aretoak, merkatu plazarako tokia, komun publikoak, bildegia eta beste hainbat ere jaso ditugu.

- **Nolako izan da proposamena lantzea?**

Ba bakoitza toki batean egon garenez, Skype bidez ibili gara elkarrekin beharre-

an. Egia esan, horrek badauka bere abantaila, izan ere elkarrekin lan egiten denean batak besteari eragin egiten dio nahitaez, baina bakoitza bere aldetik egotean ideiak eta ez dira elkarrekin "kutsatzen", moduren batean azaltzeko.

- **Eibarko arkitektoa izanik, zure proposamenak irabaziko balu, nolako litzateke Errebalerako proposamen hau gauzatzeko aukera izatea?**

Oso polita eta ilusionantea, benetan oso modu egokian egiten ahaleginduko nintzateke, Eibar foball taldeak lehen mailan jokatzearen parekoa.

- **Errebalgo hau proiektu garrantzitsua da, baina baduzu besterik esku artean?**

Beharrez sortzen direnetatik aparte, Ego Ibarrentzat Eibarko Industria Ondareari buruzko ikerketa egiten nabil, nire tesia horren ingurukoa da-eta. Arlo horretan behar handia egiten nabil, Eibarko ondare industrialarekin benetan zabala da-eta.

ANGEL AMUATEGI CASADO

2014ko maiatzaren 24an hil zen,
91 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



kalian jolasian



magia ikuskizuna



artisans azokia



talo postua

**euskal jaia
2014**



eibarko kantuzaleak



herri-kirolak



herri-bazkarixa



erromerixa



ezpalak jaialdixa



kantu-afarixa



argazkiak
MAIALEN BELAUSTEGI





JOSE MIGUEL LASKURAIN "Zuzendariak interpretatu egiten du pieza batek dioena"

Jose Miguel Laskurain txistuko irakasle nagusia da, Donostiako Kontserbariotik. Herriko danborrada ere zuzentzen du, 2008an Juan Mari Lejardi "Pastorren" lekukoa hartu zuenetik eta aurten amaituko du orkestra zuzendaria izateko karrera. Huelvan dihardu ikasten eta liburua kaleratu berri du ikaskideekin, Amazonen best-seller dena. Musikarien burmuinak zelan funtzionatzen duen du gaitzat teknika hobetzeko ahalegin horrek.

- "Las 7 claves de la Técnica NeuroDirectorial: Dirección Orquestal 3.0" liburua kaleratu duzue orkestra-zuzendaria izateko ikasten diharduzuenon artean. Zer dago horren atzetik?

Gure egin beharrekoak bere eragina du beste musikarietan eta horren nondik-norakoan sakondu dugu: burmuinak dituen arlo logikoan, linbikoan eta reptilianoan erreparatuz. Navarro Lara gure irakasleak teknika neuro-direktoriala erabiltzen du, beste keinu batzuekin teknika modernoagoa sortuz. Musikako zazpi klabeei jarraituta, liburua zazpi puntutan banatu dugu. Amazonek duen arlo artistikoan arrakasta handia izan du eta modu digitalean jais-teko bide erraza eskaintzen du.

- Zenbat falta zaizu orkestra zuzendaria izateko?

Hiru urteko karrera da eta, teknologia berrietan oinarrituta, internetez jasotzen ditugu klaseak asteburuetan. Noizbehinka Andaluziara joan behar izan dut, baina klaseak erdi-presentzialak dira. Itxaropena dut abenduan lizentziatuko naizela, behin Royal School of Londonen azterketa gaitututa.

- Zer dohai izan behar ditu, nahitanahiez, zuzendari batek?


Entzumena esaten da, baina ez da holan. Gehiago da lana: obra bakoitza buruz zuzentzeko gai izatea. Irudimenak ere pisu handia du: fragmentu bakoitza adjetibatuzko gauza izan behar duzu. Zuzendaririk gabeko orkestra bat oso mekanikoa izango litzateke. Horregatik, zure ideia plasmazterakoan egiten duzu musika.

- Danborrada gero eta gertuago dugu. Pozik zuzentzearekin?

Egun batetik besterako jauzia izan zen: eskerrak emazteak animatu ninduela. Dagoeneko entxfatuta nago. Zazpigarren urtea izango da eta Eibar FT-ren himnoa joko dugu aurten, barril eta danborrekin. Aurten ere ETBko kamarak izango ditugu eta horrek emanaldia luzatzea eskatuko digu beste behin.


- Bibolina, oboea, fagota eta gaita nafarra ere ikasi duzu. Zelako egoeran dago musika mundua Eibarren? Baikor zara?

Gauza asko dugu: Musika Eskola, Banda, Mariachia, Sostoa... Baina bakoitza bere munduan ikusten dut, mugatua. Etorkizuna ez da erraza izango. Errelebo askorik ere ez dakit dagoen. Eibarren askotan dena eginda jaso nahi izaten dugu: txalo jotzekoak gara, ez hainbeste parte hartzekoak.



Birakaren dantza emanaldiak

Datorren asteko eguazten, eguen eta barixakuan "Los 40 principales" ikuskizunaren emanaldi bana eskainiko dute Biraka-k dantzariak, 20.00etan Coliseoan. Ikasturte amaierako ikuskizunerako sarrerak 3 euro balio du eta aurre salmenta hilaren 5ean, 19.00etan zabalduko dute interneten, www.kutxabank.es helbidean zein Coliseoko leihatilan (astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara).




Mahai-ingurua "El Conquis" saiokoekin

Jende askorentzat oso erakargarria den "El conquistador del fin del mundo" ETB-2ko programaren inguruko mahai-ingurua antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, ekainaren 11rako (eguztenerako), 19.30etan Portalean. Aurretik ere saioko hainbat lagun hitzaldia ematera gonbidatu dituzte, baina oraingoan bakar-kar aritu beharrean saioaren

ikuspegi ezberdina daukaten lau lagun elkarrekin jarriko dituzte mahai-inguruan eta publikoak euren arteko solasaldian esandakoak entzun zein galderak egiteko aukera izango du. Parte hartzera etorriko diren lau lagunak Jose Luis Korta kapitaina, Julian Iantzi aurkezlea, Joxean Goñi zuzendaria eta Egoitz Txurruka "Txurru" Mallabiko lehiakidea dira.

Emarock-en aurkezpen eta emanaldia

Emarock dokumentalaren aurkezpena egingo du Saioa Cabañas proiektuaren koordinatzaileak gaur 18.30etatik aurrera Beleko tabernan. Euskal Herrian musikagintzan dabilzan emakumeak ezagutzera emateko asmoz abiatutako proiektuari buruzkoak www.emarock.com webgunean batu eta zabaltzen dituzte. Gaur aurkeztuko duten dokumentalean adin eta herri ezberdinetako hamasei emakumekin grabatutako elkarrizketak ikusteko aukera izango da, bakoitzaren iritzi, pertzepzio eta bestelakoak zuzenean euren ahotik entzunda. Grabazioan, besteak beste, Izaro Apraiz eibartarrak jardun zuen beharrian. Bideoa ikusi eta komentatu ondoren, bestalde, 20.30etatik aurrera emanaldi akustiko oso berezia hartuko du tabernak: Emarock proiektuko kide diren hiru abesla-



rik, Kokein-eko Zaloak, Mursego-ko Maitek eta Napoka Iria-ko Mirenek elkarrekin zuzenean kantatuko dute-eta.

laburrak

MUSIKA ESKOLA

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan datorren ikasturterako matrikulazioa zabalik dago: ekainaren 20ra arte Musika-hizkuntzan (maila guztietan), Koruan eta Talde instrumentalean izena emateko aukera egongo da. Ekainaren 2tik 6ra bitartean ikasturte honetan matrikulatuta egon eta instrumenturen batean lehenengoz matrikulatuko diren ikasleek bete dezakete matrikula eta ekainaren 9tik 20ra, berriz, aurtan matrikulatuta egon eta bigarren instrumentu batean ere matrikulatu nahi dutenek zein beste guztiek eman dezakete izena.

ZERAMIKA ETA DIBUJO

Gaur arratsaldean inauguratuko dute Margo, Marrazki eta Zeramika udal eskolaren ikasturte amaierako erakusketa Portalean. Ekainaren 15era arte martitzenetik domekara bitartean, 18.30etatik 20.30etara zabalduko dute. Bestalde, Zeramika zein Dibujo eskoletan datorren ikasturterako izena eman nahi dutenek ekainaren 3tik irailaren 6ra arte izango dute matrikula betetzeko aukera.

Bihar ospatuko da Mintza Eguna



Bihar Mintza Eguna hartuko dute Izarran (Araban) eta, urtero lez, Euskal Herri osoko mintzalagunen jaia goizean hasi eta gauera arte ospatuko dute bertara joatera animatzen direnek. Parte hartzera joandakoen artean ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan egitasmoko talde bat egongo da, beste herri batzuetatik joandako mintzalagunen artean gure herria ordezkatzeko.

ARRATE ETXEBERRIA ARREGI



"Bizitzaren une asko gozatu dugu elkarrekin; ziu gaude aurrerantzean ere zure umorea inguruan sentituko dugula sarritan".

Aldalur-Zendoiatarrak



ELGOIBARKO ANGELA ZABALETA

"BETI GURE BIHOTZETAN IZANGO ZARA"

EIBARKO *BEGOÑA ETA ZIORTZA*



Ibilaldia eta Euskal Eskola Publikoaren Jaia domekan

Domekan bi jaialdi handik egingo dute bat, biak gainera Bizkaian: alde batetik, Ibilaldia ospatuko da Gernika-Lumon eta, bestetik, Euskal eskola Publikoaren 23. edizioa egingo da Balmasedan. Ohikoa denez, J.A. Mogel ikastolako Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto!-ko antolatuta, autobuz zerbitzua egongo da, Ego-Gainetik irtenda, goizeko 09.30etan; itzulera 19.30ean egingo dute. Balmasedako Euskal Eskola Publikoaren Jaian, bestalde, Vendetta, Siroka, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, EH 11 Kolore Kalejira etabar izango da. Batean zein bestean, egun osoko programazioa izango da.

Liburutegiari buruzko inkestak

Eibarko liburutegian plan estrategikoa prestatzen ari dira eta, hori dela eta, hurrengo urteerako helburuak finkatzeko, liburutegiko erabiltzaile zein erabiltzaile ez direnen iritziak aztertu nahi dituzte. Diotenez, "plan hori aurrera eramateko herritarren parte-hartzea kontuan izan nahi dugu, euren iritziak ezinbestekoak direla uste dugu-eta". Horregatik, herritarrei laguntza eskatu nahi diete, liburutegiaren blogean dagoen inkesta betetzeko zein lagunen artean zabaltzeko. Betetzeko inkesta-eredu bi daude, bat erabiltzaileentzat pentsatutako galderekin eta bestea, berriz, erabiltzaile ez direnei zuzendutakoekin. Bakoitzak dagokionaren gainean klikatuta, inkesta-orria bete eta zuzenean bidaltzeko aukera dauka.



Inkestek plan estrategikoa osatzeko erabiliko dituzte.
SILBIA H.

Dendari Elkartearen zozketak

Eibarko Dendarien Elkarteak datafonoaren bidez maiatzaren 20an egindako zozketan, Jose Ramon Martinez Laborda, Beittu optikako bezeroa izan zen saritua. Irabazleak hurrengo egunean, arratsaldean Beittu optikako eskutik jaso zuen saria, 1.000 euroko erosketatxartela. Dendarien Elkarteak azaldu duenez, erosketak egitean el-

kartearen txartelarekin ordaintzen dutenen artean 1.000 euroko beste erosketatxartel bat zozketatuko dute. Horrekin batera, Eibar foball taldeari laguntzeko asmoz, Dendarien Elkarteak Eibar Kirol Elkartearen 15 akzio erosi ditu, ekainaren 17an egingo duten zozketaren birtatez elkarteko dendetako bezeroen artean oparitzeko.



M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.

ekainak 15

MUGAN Bizi, Bizi.

ARABA EUSKARAZ 2014

LAPUEBLA de LABARCA EKAINAK 15

AUTOBUS

12 eurotan

Buelta: 19.00etan

Irteera: 09.00etan

zerBITZUA

Lapuebla de Labarcan

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, AIMAR, bixar bost urte beteko dozuz. Ondo pasa Aitana, Endika eta famelixaren partez.



Zorionak, IZANE Sendino Suarez, 2xan urtetxua egingo dozu-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, amama EDURNE, atzo urtiak bete zenduaz-eta! Jarraitu holako guapa eta laster indomito! Patxua! Famelixia.



Zorionak, AMAIA, haraiñegun sei urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, BEÑAT, gure etxeko txikixak martitzenian bost urte egin zittuan-eta. Muxu pillua etxekuen partez.



Zorionak, ANDER Unamuno, gaur urtebete egiten dozu-eta. Izeba Biotza, osaba Bittor eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARIANE, atzo hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu bat aitatxo, amatxo eta Naiaren partez.



Zorionak, MARTXEL!, martitzenian hiru urte egingo dozuzelako. Patxo haundi-haundi bat! Paaaaa!!!!



Zorionak, ELENE!, atzo urtia bete zenduaz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KEPA, atzo sei urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, IRATI, astelehenian 10 urte egingo dozuzelako. Gurasuen partez.



Zorionak, URKO, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL eta UXUE: zazpi urte honezkeru!!! Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, JULENen partez.



Zorionak, izeko ROSA (bixar 50 urte betetzen dozuz) eta MAIDER (domekan urtetxua egingo dozu). Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JONE, zure 3. urtebetetzian. Etxekuen partez!!!



Zorionak, XABINO. Ah! zer oparixa foballarixak egin deutsuena



Zorionak, EKHI! Beste urte bat gurekin eta beti irrifartsu! Aupa, pirata! Aupa43!

hildakoak

- Antonio Bermejo Rodriguez. 77 urte. 2014-V-21.
- Maria Urkidi Urriolabeitia. 89 urte. 2014-V-22.
- Florentino Jimenez Garcia. 87 urte. 2014-V-23.
- Angel Amuategi Casero. 91 urte. 2014-V-24.
- Esteban Arzelus Salegi. 92 urte. 2014-V-24.

jaiotakoak

- Maria Gisasola Paulavets. 2014-V-11.
- Cherif El Ghaouth Hamma. 2014-V-15.
- Sonia Ali Subhanli. 2014-V-19.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
31n: 19.45, 22.30
1ean: 17.00, 20.00
2an: 20.30

"El pasado"
Zuzendaria: Asghar Farhadi



(2 ARETOAN)
31n: 19.45, 22.30
1ean: 17.00, 20.00
2an: 20.30

"El gran cuaderno"
Zuzendaria: Janos Szasz



(ANTZOKIAN)
31n: 22.30
1ean: 20.00
2an: 20.30

"Grace de Monaco"
Zuzendaria: Olivier Dahan



(ANTZOKIAN)
31n: 19.45
1ean: 17.00
"Una noche en el viejo..."
Zuzendaria: Emilio Aragon



BARIXAKUA 30

EMAROCK

18.30. Dokumentalaren aurkezpena eta bideo emanaldia.

20.30. Emanaldi akustikoa: Zaloa (Kokein), Miren (Napoka Iria) eta Maite (Mursego). Beleko tabernan (Bista Eder, 2).

ELKARRETARATZEA

19.00. "Eibarren zezenketarik ez". Untzagan.

BATZARRA

19.00. Sanjuanak antolatzeke, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

ZAPATUA 31

GELTOKI MARKET

10.30/15.30. Bigarren eskuko azoka. Eguerdian 150 lagunendako paella-jana (5 euro). Estaziño kalean.

EIBAR PRIMERAN

11.00. Txosna: txorizo pintxoak, tortilla eta edariak (15.00ak arte). Bihurri aizkolariaren erakustaldiak (besteak beste, 3'5 metroko perimetroko enborra moztuko du). Zozketak: Eibar K.E.-aren kamisetak, baloiak, bufandak, Bihurrik egunean bertan egindako aulkia... Eskozia La Bravak antolatuta, kapital-zabalkuntzan laguntzeko. Untzagan.

22.00. Partidua amaituta, jokalariai Urkuzutik Untzagara autobusean irtengo dira. Udaletxean harrera egingo diete. Jarraian, plazan ipinitako plataforman igota, zaletuei eskerrak ematea. Jarraian, DJ-saioa. Untzagan.

TANTANEZ TANTAN

13.00. Eibarren euskaraz bizi!. Urkizuko iturrian gantxilla urarekin bete eta eskurik-esku Untzagaino eramatea. Amaieran manifestua, bertsoa, dantzak... Untzagan.

KONTZERTUA

23.59. Los Romanticos taldea. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 1

DEPORREKO KLUBAREN EGUNA

08.15. Arratera mendi igoera. Deporretik hasita, Santa Kurutz eta Kalamuatik.

09.00. Arratera mendi igoera haur eta gurasoentzat. Autobusa Ego-Gainen Ixuaraino, Kalamua eta Akondiatik.

09.30. Arratera roll-eski igoera. Itzioko parketik hasita.

12.00. Pilota partiduak. Caelo Memoriala. Arrateko frontoian.

12.00. Dantza emanaldia, Kezka taldearekin.

12.30. Mendi dominen banaketa haur eta helduei.

14.30. Herri-bazkaria Tiro Pitxoian (txartelak Deporren hartu behar dira).

MARTITZENA 3

BILERA INFORMATIBOA

19.00. Finantza Erakundeek kaltetutakoen Elkarteak eskainita. Unzaga Plaza Hotelean.

EGUAZTENA 4

IKASTEN

09.11. Mendi-ibilaldia: Kobaron-go itsaslabarra (Muskiz). Trenaren irteera ordua Estaziñotik (Ardantzatik 09.13etan).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANTZA

20.00. "Los 40 princibailes", Biraka dantza taldearekin (3 euro). Coliseoan.

EGUENA 5

HITZALDIA

19.00. "Sentencia por intereses abusivos del IRPF", Jose Maria Erauskinekin. Debabarreneko Kaleratzeak Stop-ek antolatuta. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatsaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANTZA

20.00. "Los 40 princibailes", Biraka dantza taldearekin (3 euro). Coliseoan.

ikastaroak

✓ **Yoga. Noiz eta non:** maiatzetik ekainera, martitzen eta eguenetan (12.00-13.30 / 17.30-19.00). Irakaslea: Marta Irueta. Arrate Kultur Elkartearen. Prezioa: hileko 35 euro (30 bazkideek).

✓ **Dantza Afrikarrak. Noiz eta non:** maiatzaren 22 eta 29an; ekainaren 5 eta 12an (eguenetan), 19.00-21.00. Irakaslea: Arantza Iglesias Arbizu. Arrate Kultur Elkartearen. Prezioa: 45 euro (40 euro bazkideek).

Izen-ematea: Arrate Kultur Elkartearen, astelehenetik eguenera (17.00-19.00); 943202299 telefonora deituta (mezua laga erantzungailuan); arratekultu@gmail.com helbidera deituta.

HOROSKOPOA

ARIES

Zorraz kitatzea tokatzen zaizu. Iraganeko kontuak atzean laga eta hutseik hasiko zara. Zuk egin beharko duzu bidea.

TAURUS

Kokoteraino zaude telebistan entzuten dituzunekin, baina ezin duzu gorrarena egin. Zure eskuan dagoena egizu, arren!

GEMINI

Hamaika ikusteko jaioak! Ezin sinestuta ibiliko zara, nola gerta daiteke halakorik? Argi dago zuk halakorik ez duzula egingo.

CANCER

Barreanean denbora askoan zenuen hori bota eta erabat lasaituko zara. Une egokia bilatzen... agian denbora gehiegi pasa da.

LEO

Zure antza handia duen norbait ikusi eta ispilu baten aurrean zaudela pentsatuko duzu. Klona? Zeinen txikia da mundua!

VIRGO

Badakizu bera zure alboan egongo dela edozer gauzatarako, baina noizean behin ez dago gaizki eskerrak ematea.

LIBRA

Egoera bitxia biziko duzu domekan, deserosoa, baina ederki egingo duzu barre ondoren. Gorri-gorri jarriko zara.

SCORPIUS

Euskal jaia oso gustokoa duzu eta aurtien ere ederki pasatu duzu dantzan, kantuan eta dena delakoan. Hori bai, ajea demasa!

SAGITTARIUS

Buruan gauza gehiegi dituzu eta bakoitza bere lekuan ipintzen saiatuko zara. Dena ordenatuta, arnasa hartu eta aurrera egin!

CAPRICORNIUS


Pentsatzen duzu gauza txar guztiak zuri gertatzen zaizkizula, baina edozergatik kezaten zara. Tontokeriak dira horiek.

AQUARIUS

Zure lekuan egotea gustatuko litzaioke jende askori eta horretaz ohartuko zara. Duzun guztiak baloratzen lagunduko dizu.

PISCIS

Ezin ukatuko duzun eskaintza jasoko duzu. Bueltak emango dizkiozu buruari, baina onartuko duzu. Gustora zaude?



erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
33. ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Depor tabernan.
KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN argazki erakusketa. *El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuetxean.*
JOSE RAMON SAN JOSEREN argazki erakusketa. *Topalekuan.*
PORTFOLIO NATURAL elkartekoen eta **ENRIC PAMIES** eta **GARCIA DE MARINAREN** argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Ekainaren 15era arte**
MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA udal eskolakoen ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*

farmaziak

- ✓ **barixakua 30**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **zapatua 31**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 1**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 2**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 3**
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguzatena 4**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 5**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 6**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak

- ✓ **Li (buru-hausgarriak)**
 Irakurzaletasuna sustatzeko lehiaketa, LH-ko 2. mailatik gorakoentzat. Liburutegian.
- ✓ **On Ekin enpresa ideia-proiektu lehiaketa**
 Lanak aurkeztea eta informazioa: ekainaren 27ra arte, ekingune.com webgunean, ekingune@ekingune.com helbidera idatzita edo 943208420 telefono zenbakira deituta.
- ✓ **IV. Maskota Lehiaketa**
 Uztailaren 5ean, 11.30etan. El Corte Inglesean, 3. solairuan.
- ✓ **Made In Eibar dokumental lehiaketa**
 Lanak aurkeztea: irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. Informazioa: 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

			7		3	
8	5	9		7		
3		8				9
9	7			3		
4		3			5	2
			4			7 3
1				8		4
		6		9		1 5
	9		4			

SUDOKUA

2	1	3	8	6	7	9	5	4
4	5	6	9	3	1	2	8	7
9	7	8	2	5	4	3	1	6
5	9	7	4	1	3	8	6	2
6	3	2	7	8	5	1	4	9
1	8	4	6	9	2	7	3	5
7	6	5	3	2	8	4	9	1
3	4	9	1	7	6	5	2	8
8	2	1	5	4	9	6	7	3

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 60 m². Berriztua. Argitsua eta kanpora begira. Berogailu urdina. 69.000 euro. Tel. 617-207672. 19.00etatik aurrera.

1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar/Elgoibar inguruan. Tel. 637-363778.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-569245.
– Igogailua duen pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Luzararako. Tel. 615-709177.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komunarekin. Tel. 632-192408.
– Pisua hartuko nuke errentan. 3 logela, egongela erta komunarekin. Tel. 632-192408.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Taberna txikia alokagai Urkin. Errenta eta fidantza merkea. Tel. 645-710439.
– Lokala partekatuko nuke. Prezio onean. Tel. 620-608065.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-832767. Eva.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 673-199638.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 679-946934.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-534135.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 3 urteko esperientzia. Orduka eta baita gauzez ere. Tel. 660-514858.
– Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-241910.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 610-658914.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
– Pedagogia amaitzen diharduen ikaslea eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-591982.
– Gizonezkoa eskaintzen da peoi moduan, segurtatean jarduteko, igeltsero-laguntzaile moduan. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta haurrak eskolara eramateko. Tel. 664-065826.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 686-265293.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 674-638686.
– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko, baserrian lan egiteko, peoi moduan... Tel. 688-819010.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-120839.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-604531.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko arratsaldez eta asteburuetan. Tel. 645-366850.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-830030.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-121252 eta 603-740755.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-180539.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek eta pegorak garbitzeko. Tel. 600-332954.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-057896.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauzez ere. Tel. 660-511781 eta 943-742330.
– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko (peoi edo ofizial), sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 13.00etik 20.00era. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 674-342769.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.

4.2. Langile bila

– Sukaldari-laguntzailea behar da asteburuetarako. Tel. 620-810120.
– Emakume euskalduna behar da umea eskolara eramane eta etxea garbitzeko. Tel. 699-024156.
– Ilea-paintzaile ofiziala behar da Eibarko ilea-paindegi batean. Tel. 943-207207.
– Gaztea behar da asteburu eta jaietan tabernan lan egiteko. Bidali curriculum-a kamarerobila@gmail.com helbidera.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, ... Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai


– Kuxin (kojin) kanporatzailea salgai. Jarrita dagoenari jaitzitzen laguntzeko. Tel. 943-207731 eta 605-713975.
– Baby Monitor Philips Avent jaioberriei entzutekoa salgai. Tel. 626-144098.
– Umeentzako motxila salgai. Denter markakoa. Tel. 626-144098.
– Gurpil-aulkia salgai. Ia berria eta motorrekin. Motorra kobratuko da eta aulkia oparirako. Nagusiendako taka-taka ere salgai, otarxoa eta guzti. Tel. 943-207731 eta 605-713975.
– Bigarren eskuko bizikletarako remolke-karroa erosiko nuke, bi haur eramateko. Tel. 660-840246.
– Mini-sehaska salgai, Micuna Smart markakoa. Ia erabili gabe. 150 euro. Tel. 669-947125.
– Labea salgai, taberna, okindegi edo dendan erabiltzeko modukoa. Baita osalaritzako altzari gehiago ere. Urte eta erdi erabilitakoak. Tel. 615-719288.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Umearen txapela aurkitu zuten domekan, maiatzaren 25ean. Tel. 608-507758.

6.4. Bestelakoak

– Baserriar jantzia behar da, 7 urteko batentzat. Tel. 664-065826.



Izen-ematea

maiatzak 27tik ekainak 6ra

» Oñati gestio
heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh

info.enpresagintza@mondragon.edu

943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh

gmh.mgep@mondragon.edu

943 73 97 65



ZURE UNEA DA, ZURE ETORKIZUNA DA,
ZURE LANA DA!

**Matrikula zaitez
Lanbide Heziketan!**



IEFPS-GLHBI
ArmeriaEskola^x
EIBAR

Izenematea:

Maiatzaren 27tik ekainaren 6arte

Tfnoa. 943 20 32 44 - eibar@armeriaeskola.com



www.armeriaeskola.com

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 **innova**dental
CLINICAS



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [Azpeitia]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com